Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
---------	----------------------------	----------------------------

002/2314/41201 00	EP. Proyecto Euskal Fondoari TA (Garapenerako Lankidetzeta) TC a EP Proyecto Euskal Fonda (Cooperación al desarrollo)	8.543,00
Guztira Total		8.543,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	8.543,00
--	----------

84.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, LANKIDETZAKO ERAKUNDE IRABAZI-ASMO GABEKOENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ZUZKIDURA GEHITZEARREN (2017/14).

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta aho batez onartu da.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espediente, zk. 2017/14, zenbatekoa 90.457,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

84.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA EL INCREMENTO DE DOTACIÓN PARA SUBVENCIONES A INSTITUCIONES SIN FINES DE LUCRO EN EL ÁMBITO DE LA COOPERACIÓN (2017/14).

Tras darse lectura a la propuesta es sometida a votación siendo aprobada por unanimidad.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por unanimidad se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/14 de Crédito Adicional, por importe de 90.457,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbateko a Importe en €
002/2314/48100 00	Irabazi gabeko erakunde (Garapenerako Lankidetzeta)	90.457,00

	Instituciones sin fines de lucro (Cooperación al desarrollo)	
Guztira Total		90.457,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako	90.457,00
Remanente de tesorería para gastos generales	

85.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, GETXO PRO SAHARA "ATFAL" ELKARTEARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAREN ZUZKIDURA GEHITZEARREN (2017/15).

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta honako emaitza hau irten da: 21 boto alde (EAJ, PP, EH Bildu, PSE-EE eta Ciudadanos), eta 4 abstentzio (GUK).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espediente, zk. 2017/15, zenbatekoa 6.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
002/2314/4811300	IAGE-ei TA Atfal (Pro.Sahara) (Garapenerako Lankidetz) TC a ISFL Atfal (Pro.Sahara) (Cooperación al desarrollo)	6.000,00

Guztira Total	6.000,00
------------------	----------

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako Remanente de <u>tesorería</u> para gastos generales	6.000,00
---	----------

86.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRU-LAGUNTZAK FINANTZATZEARREN (2017/16).

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta honako emaitza hau irten da: 21 boto alde (EAJ, PP, EH Bildu, PSE-EE eta Ciudadanos), eta 4 abstentzio (GUK).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/16, zenbatekoa 178.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

86.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA FINANCIACIÓN DE SUBVENCIONES DE SERVICIOS SOCIALES (2017/16).

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación obteniendo el siguiente resultado: 21 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/16 de Crédito Adicional, por importe de 178.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
002/2310/4800000	Familei (Gizarte ekintza eta gizarteratzea) Familias (Acción e integración social)	18.000,00
002/2310/4800500	Familiantzako ohi ez bezalako laguntzak (Gizarte ekintza eta gizarteratzea) Ayudas carácter extra.familias (Acción e integración social)	150.000,00
002/2310/4812100	Uribe Costa Elkarteari TA (Gizarte ekintza eta gizarteratzea) TC Asoc.Uribe Costa discapc. (Acción e integración social)	10.000,00

Guztira Total	178.000,00
------------------	------------

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	178.000,00
--	------------

87.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEAN, EMANTZIPAZIOA SUSTATZEKO HELBURUAZ ALOKAIRURAKO LAGUNTZETARAKO (2017/17).

Proposamena irakurri ondoren, Enrique Pradak hitza hartu eta seinalatu du proposamenaren alde egingo duela, nahiz eta ez dauden ados gobernu-taldeak nola heltzen dion etxebizitzaren gaiari. Beraren ustez, etxebizitzari buruz proposatzen diren neurriak urriak dira, neurririk ez dagoela ez esatearren, eta gobernu-taldearen erantzukizuna, hein handi batean, gai horietan jarduketarik egin ez izana, eta Udalaren Lurzoru-Ondarea Getxo Antzokia finantzatzera bideratu izana. Txikiegi deritza proposamenari, eta eskatu du haren xede nagusietara bideratzea Udalaren Lurzoru-Ondarea. Kritikatu du oraindik 2009ko etxebizitza-plana beste batzuek aktibatzearen zain egotea, eta gobernu-taldeak ez bultzatzea. Amaitzeko, seinalatu du GUK elkarrizketetan ari dela gobernu-taldearekin arazo honetarako konponbideak eman nahian.

Joseba Arregik adierazi du iazko aurrekontu-akordioaren ondorioz lerro berri bat hasi zela etxebizitzak alokatzea laguntzeko, eta diru-laguntzen onuradunei buruzko datuak eman ditu. Seinalatu du zenbait talde politikok ez daukatela etxebizitza-planik, eta

87.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA AYUDAS PARA EL ALQUILER A FIN DE PROMOVER LA EMANCIPACIÓN (2017/17).

Tras darse lectura a la propuesta interviene Enrique Prada indicando que van a apoyar la propuesta pese a que tienen diferencias en cómo aborda el equipo de gobierno el tema de la vivienda. Cree que las medidas que se plantean sobre vivienda son pobres por no decir inexistente y es de gran responsabilidad del equipo de gobierno la falta de actuación que ha tenido en estas materias y que haya destinado el Patrimonio Municipal del Suelo a financiar el Getxo Antzokia. Cree que la propuesta es algo mínimo y pide que se dedique el PMS a sus fines prioritarios. Critica que el plan de vivienda de 2009 sigue a la espera de que se activen por otros sin que lo impulse el equipo de gobierno. Finaliza indicando que GUK está en conversaciones con el equipo de gobierno para tratar de aportar soluciones en esta problemática.

Joseba Arregi manifiesta que fruto del acuerdo presupuestario del pasado año se inició una nueva línea de apoyo a la vivienda de alquiler y da datos de los beneficiarios de las ayudas. Indica que existen grupos políticos que no tienen plan de vivienda y las conversaciones

eurekiko elkarrizketetan ez dutela inongo plan zehatzik aurkezten. Adierazi du, halaber, itundutako etxebizitza-plana gauzatzeko zorian dagoela, eta gogorarazi du oraingo HAPOarekin bakarrik sustatu daitezkeela babestutako etxebizitzak hiri-lurretan, eta errealitateak erakusten duela GUK ez dagoela jarduketa horien alde.

Santiago Sainzek seinalatu du ez dutela proposamenaren aurka egingo, baina gogorarazi du 3.000 etxebizitza inguru huts daudela, eta 1.700 inguru luzaroan daudela hutsik, azken azterketen arabera (ez dira oso datu zehatzak). Aurreko Osoko Bilkura batean Getxon dauden etxebizitza hutsen gaineko azterketa sakon bat egitea babestu zuten, eta dagoeneko proposatua diote etxebizitzari buruzko euren proposamena Hirigintzako zinegotziari. Egokiago deritzote Eusko Jaurlaritzaren Bizigune planari laguntzea, eta plan horrek etxebizitzak alokairuan jartzeko jabeai ematen dizkien diru-laguntzak osatzea.

Nerea Guijarrubiak adierazi du nabaria dela etxebizitzaren arazoak Getxon duen larritasuna, eta horri aurre egiteko plan integral bat behar dela. Proposamena aurrerapauso bat da, etxebizitza hutsen errolda erreala egitea onestea izan zen moduan. Berresten du plan integral baten beharra, gaur egun sufritzen ari baita, gazteek batez ere, azken urteotan Getxon etxebizitza-politikarik egon ez izanaren ondorioak.

Enrique Prada bat etorri da EH BILDUREkin udalerriri osorako etxebizitza-plan integrala behar dela. Kritikatu du gobernu-taldeak Udalaren

que mantienen no presentan ningún plan concreto. Manifiesta que está a punto de verse culminada la ejecución del plan de vivienda pactado y recuerda que con el actual PGOU solo cabe promover vivienda protegida en el suelo urbano y la realidad demuestra que GUK no apoya esas actuaciones.

Santiago Sainz indica que no se van a oponer a la propuesta pero recuerda que hay alrededor de 3000 viviendas desocupadas y de entre ellas 1.700 que se consideran vacías como tales según los últimos estudios que no son datos muy concretos. En un Pleno pasado apoyaron que se hiciera un estudio profundo sobre la situación de la vivienda en Getxo y ya han planteado al concejal de Urbanismo su propuesta sobre vivienda. Creen que es más oportuno apoyar el plan Bizigune del Gobierno Vasco complementando las ayudas que dicho plan ofrece a los propietarios para que pongan sus viviendas en alquiler.

Nerea Guijarrubia manifiesta que es evidente la gravedad de la problemática de la vivienda en Getxo y que para hacer frente a la misma hace falta un plan integral. La propuesta es un paso como fue también aprobar la confección de un censo real de vivienda vacía. Se ratifica en la necesidad de un plan integral ya que actualmente, sobre todo los jóvenes, están padeciendo los efectos de una falta de política de vivienda en Getxo durante los últimos años.

Enrique Prada comparte con EH Bildu que es necesario un plan integral para todo el municipio sobre vivienda. Critica que el equipo de gobierno haya

Lurzoru-Ondarearen baliabide publikoak xahutu izana etxebizitza arlora bideratu barik. Bere iritziz, gobernu-taldearena da, funtsean, etxebizitzaren erantzukizuna. Galdetu du Udalaren Lurzoru-Ondareko zenbat diru gastatu da Getxo Antzokian, eta ea asmorik duten uholdeak izaten dituzten eremuetan eraikitzen jarraitzeko, Iturribarrin, esaterako. GUKek proposamen bat aurkeztu dio gobernu-taldeari, eta uste du akordio bat lortzeko aldatu behar dela gauzak egiteko modua, eta akordio politiko eta sozialak bilatu. Amaitzeko, adierazi du pozten dela etxebizitza-planaren ondorioak ikusi ahal izango direlako, zortzi urte geroago.

Joseba Arregik erantzun du babes ofizialeko etxeak har ditzakeen lurzoru guztia, Getxoko hiri-lurzoruan, Udalaren jabetza direla, eta hori lortu dela hirigintza-kudeaketaren bidez, batez ere, Udalaren Lurzoru-Ondarearen zuzkidurak erabili beharrik gabe. GUK HAPOn eztabaidara joateko gonbidatu du, han ikusiko baitira etxebizitzaren inguruko jarrerak eta politikak.

Enrique Pradak erantzun dio GUKek jakinarazi dizkiola gobernu-taldeari bere ildo orokorrak, eta horietan aurreikusten dela hiri-perimetroaren zaharberritzea, Udalaren Lurzoru-Ondarea lehentasunezko xedetara bideratzea eta 2014 eta 2017 urteen bitarteko kredituak aportatzea, besteak beste. Berretsi du adostasuna bilatzearen alde daudela, horretarako kontu puntualak saihestuz, eta proposatu du horri buruzko berariazko topagune bat eratzea. GUKek, gobernu-taldearekin ez ezik, talde politiko guztiekin ere lortu nahi ditu akordioak, politika egiteko modu ezberdin baten

dilapidado recursos públicos del PMS no destinandolos a vivienda. Estima que la responsabilidad de la vivienda es fundamentalmente del equipo de gobierno. Pregunta cuánto dinero del PMS se ha gastado en el Getxo Antzokia y si se va a seguir planificando vivienda en zonas inundables como Iturribarri. GUK ha presentado una propuesta al equipo de gobierno y cree que para llegar a un acuerdo hay que modificar las formas de hacer las cosas, buscando acuerdos políticos y sociales. Finalmente manifiesta que se alegra que tras ocho años se vayan a ver los resultados del plan de vivienda.

Joseba Arregi replica que todo el suelo que pueda albergar VPO en el suelo urbano de Getxo está en propiedad del ayuntamiento y eso se ha conseguido fundamentalmente a través de la gestión urbanística sin necesidad de aplicar dotaciones del PMS. Emplaza a GUK para el debate del PGOU donde se van a ver las posturas y las políticas de vivienda.

Enrique Prada contesta que GUK ha trasladado sus líneas generales al equipo de gobierno, que contempla la renovación del perímetro urbano, que el PMS se dedique a las finalidades preferentes y que se aporten los créditos correspondientes a los ejercicios 2014 al 2017 y otra serie de cuestiones. Insiste en que están por la labor de buscar un consenso evitando cuestiones puntuales y plantea que se cree un foro específico al respecto. GUK busca llegar a acuerdos con todos los grupos políticos, no solo con el equipo de gobierno a través de una forma diferente de hacer política.

bidez.

Santiago Sainzek GUKi erantzun dio haiekin hitz egin nahiko lukeela etxebizitza-politikari buruz, eta akordiora heltzeko eta herritarrek euren proposamenak ezagutzeko proposamenak partekatzea egokia ikusten duela eta horrela ezagutuko ditu euren proposamenak eta web orrialdean eskegi Ciudadanosek egiten duen bezela.

Santiago Sainz contesta a GUK que le gustaría hablar con ellos acerca de la problemática de la vivienda. Aunque les sugiere que para llegar a acuerdos entre todos y para que la ciudadanía conozca sus propuestas sería conveniente que compartieran sus ideas en cuanto a política de vivienda para saber cuales son sus aportaciones y publicarlo en la web como ya hace Ciudadanos.

Joseba Arregik publikoak diren datuak eman ditu aurreikusitako etxebizitzaren kokapen eta bermeei buruz, eta galdetu dio GUKi Getxorako zenbat etxebizitza proposatzen dituzten eta non.

Joseba Arregi ofrece datos acerca de ubicación y cuantías de las viviendas previstas, datos que son públicos y pregunta a GUK dónde y cuántas viviendas plantean ellos para Getxo.

Proposamena bozkatu egin da, eta aho batez onartu da.

Sometida la propuesta a votación es aprobada por unanimidad.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por unanimidad se acordó:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/17, zenbatekoa 250.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2017/17 de Crédito Adicional, por importe de 250.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
004/1520/4800000	Familiei (Etxebizitza) Familias (Vivienda)	250.000,00
Guztira Total		250.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	250.000,00
--	------------

88.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, ESKOLATZEKO GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZUZKIDURA GEHITZEARREN (2017/19).

Proposamena irakurri ondoren, Susana Andollok adierazi du GUKek aldeko botoa emango duela puntu honetan, zeina ezkutatuta baitzegoen Ogasun batzordearen puntu ugarien artean, zeren diru-laguntzak errentaren araberako irispideekin emango direla baitirudi, eta ez katastroko balioaren arabera, orain arte egiten ari zen bezala.

Inazio Uriartek erantzun du puntua ez dela inoiz ezkutatu egon Ogasun-batzordean, eta, aitzitik, behar bezalako errespetuaz tratatu dela, gainerako puntuak bezala.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 21 boto alde (EAJ, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos), eta 4 abstentzio (EH Bildu).

Ondiroz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espediente, zk. 2017/19, zenbatekoa 50.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

88.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA EL INCREMENTO DE LA DOTACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PARA GASTOS DE ESCOLARIZACIÓN (2017/19).

Tras darse lectura a la propuesta Susana Andollo manifiesta que GUK votará a favor de esta punto que figuraba escondido entre la multitud de puntos de la comisión de Hacienda ya que parece que las ayudas se van a dar con criterios de renta y no de valor catastral, como se venía haciendo hasta ahora.

Inazio Uriarte replica que el punto nunca ha estado escondido en la comisión de Hacienda sino que ha sido tratado debidamente como el resto de los puntos.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 21 votos a favor, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, EH Bildu.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/19 de Crédito Adicional, por importe de 50.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
002/3261/4800000	Familiei (Hezkuntza jarduerak) Familias (Acciones educativas)	50.000,00
Guztira Total		50.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	50.000,00
--	-----------

89.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, EUSKARAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNEN ZUZKIDURA GEHITZEARREN (2017/23).

Proposamena irakurri ondoren, Enrique Olasok hitza hartu eta adierazi du GUK taldeak nahiko lukeela kontu hauek plan orokor baten barruan jartzea, ez baitaki zer eragin izan ditzaketen diru-laguntza jakin horiek gainerako diru-laguntzen gainean, eta horregatik ez dituela gogoko diru-laguntza izendunak. Kudeaketa-irizpidea aldatzeko eskatu dute, eta horregatik ez diote babesik emango proposamenari.

Koldo Iturbek bere ezustea agertu du GUKen jarreraren aurrean, proposamena bat baitator Diru-laguntzen Plan Estrategiko, Euskara-Planarekin eta batzordean jakinarazitako guztiarekin.

Bozketara eramán da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 20 boto alde (EAJ, PP, EH BILDU eta PSE-EE), eta 5 abstentzio (GUK eta Ciudadanos).

89.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA EL INCREMENTO DE LA DOTACIÓN PARA SUBVENCIONES NOMINATIVAS DE EUSKERA (2017/23).

Tras darse lectura a la propuesta interviene Enrique Olaso que indica que a GUK le gustaría que se incorporarán estas cuestiones dentro de un plan general, ya que no sabe qué efecto pueden tener estas subvenciones concretas sobre el resto de las subvenciones y por ello no le gustan las subvenciones nominativas. Piden un cambio de criterio de gestión, por lo que no van a apoyar la propuesta.

Koldo Iturbe manifiesta su sorpresa ante la postura de GUK ya que la propuesta se corresponde con el Plan Estratégico de Subvenciones, con el Plan de Euskera y con todo lo informado en comisión.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 20 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/23, zenbatekoa 28.672,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2017/23 de Crédito Adicional, por importe de 28.672,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
003/3350/4810600	IAGE-ei TA Bertsolari eskola (Euskara) TC a ISFL escuela bertsolari (Euskera)	11.680,00
003/3350/4810700	IAGE-ei TA Bizarra lepoan (Euskara) TC a ISFL Bizarra lepoan (Euskera)	3.312,00
003/3350/4813400	I IAGE-ei TA Egizu (Euskara) TC a ISFL Egizu (Euskera)	13.680,00
Guztira Total		28.672,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	28.672,00
--	-----------

90.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: SEGURTASUN ETA ORDENA PUBLIKOAREN PROGRAMAKO INBERTSIOAK (2017/24).

90.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA INVERSIONES DEL PROGRAMA SEGURIDAD Y ORDEN PÚBLICO (2017/24).

Proposamena irakurri ondoren, Nerea Guijarrubiak hartu du hitza eta berretsi egin ditu egindako galdera hau da, PPrekin lortutako akordioaren barnean 2017. urtean presoan senideentzat dirulaguntzarik ez egotea dagoen, oraindik erantzun ez diete. Seinalatu du EH BILDU prest egon dela aurrekontu-akordioa lortzeko, iaz lortu zen bezala, zeinaren bidez hogeita hamar neurri

Tras darse lectura a la propuesta interviene Nerea Guijarrubia insistiendo en la pregunta repetidamente formulada y que no se han contestado relativa a si el acuerdo con el PP incluye que no haya ayudas a los familiares de presos en el 2017. Indica que EH Bildu ha estado dispuesto al acuerdo presupuestario, acuerdo al que llegaron el año pasado y

baino gehiago sartu baitziren. Aurten, saiatu egin dira, eta adierazi behar izan zuten ez zegoela akordioa lortzeko moduko egoerarik, nahiz eta eskua luzatuta daukaten oraindik, baina ez dutela aurrekontu-proposamen ezberdinik gobernu-taldearen partez, horrek nahiago izan baitu PPrekin akordioa lortzea, Madrilen egin duen moduan, eta PPrekiko akordioa sinpleagoa dela eta EH Bilduk baino eskaera gutxiago plazaratzen zuela. Ez du uste itun etikoa denik, PPrek eskatutakoa ez baita herritarren onerako ezer, gizartearen sektore bat zigortzea baizik, dena den ez da harritu PPren etika ezarekin, kontuan hartuta alderdi horretan dagoen ustelkeria. EAJren jarrera kritikatu du, bere egin baitu biztanleriaren sektore baten kontrako zigor bat, bere kudeaketa egiten jarraitu ahal izateko. Gobernu-taldeak oraindik ez du erantzun zer ordaindu behar izan duen PPren babesa lortzeko, eta badirudi ordainketa hori giza eskubideen urraketa larriagotzea izango dela. EH BILDUK ulertzen du akordioen logika, horiek egiten direnean herritarrentzako hobekuntzak lortzeko, baina ez EAJ eta PSE-EEren planteamenduek aurrera egitea baino bilatzen ez denean.

Alkateak hitza hartu du, EAJren bozeramale gisa, eta adierazi dio EH BILDURI ez deritzola zilegi beraren jardura. Gogorarazi du udal-talde guztiei proposatu ziela lehen puntu eztabaida orokor bat egitea kreditu-proposamenei eta kreditu-gaikuntzei buruz, horietan euren balorazio politikoak aurkeztu ahal izateko, baina EH BILDUK horren aurka agertu zela, eta orain, aldiz, puntu jakin bati buruz ari direla, eztabaida orokor bat mahaigaineratu du berriro, zeina

en virtud del cual se incorporaron más de treinta medidas. Este año han intentado y tuvieron que manifestar que no había condiciones para llegar a un acuerdo aunque siguen con la mano tendida, pero no se ha visto ninguna propuesta presupuestaria diferente del equipo de gobierno que ha preferido llegar a un acuerdo con el PP como han llegado también en Madrid y el pacto con el PP es más simple y con menos peticiones que lo que planteaba EH Bildu. No cree que sea un pacto ético porque lo que ha pedido el PP no es algo que beneficie a la ciudadanía sino es algo que castiga a un sector de la misma aunque la falta de ética del PP no le sorprende teniendo en cuenta la corrupción existente en dicho partido. Critica la postura del PNV que ha asumido una propuesta que castiga a un sector de la población para poder seguir con su gestión. El equipo de gobierno sigue sin responder cuál ha sido el pago para conseguir el apoyo del PP, que parece que dicho pago va a ser un agravamiento de la violación de los derechos humanos. EH Bildu entiende la lógica de los acuerdos cuando se logran mejoras para la ciudadanía pero no cuando lo único que se busca es posibilitar los planteamientos del PNV y del PSE-EE.

El Alcalde interviene, como portavoz del PNV, para manifestar a EH Bildu que no le parece legítima la actuación que ha tenido. Recuerda que planteó a todos los grupos municipales la posibilidad de realizar en el primer punto un debate general acerca de las propuestas de créditos y habilitaciones de créditos donde se pudieran presentar las correspondientes valoraciones políticas, pero a ello se opuso EH Bildu y sin embargo ahora, que es un punto concreto, revive un

Alkatetzak toleratu baitu lehen puntuan egitea talde gutien partetik, eta zeinean EH BILDUK ere bere iritzia plazaratu baitu. Gogorazi du Udal Erregelamendu Organikoaren arabera, aztergaien zerrendako puntuak eztabaidatzean, parte-hartzeak egokitu behar zaizkiola horien edukiari, eta EH BILDUKo bozeramaileari eskatu dio horretara egokitzeko.

Nerea Guijarrubiak erantzun du balorazioa politikoa izan dela jarrerak zehazteko hurrengo bozketei begira, eta ez duela uste Udal Erregelamendu Organikoaren kontrakoa denik egin duena.

Enrique Olasok hitza hartu du eta seinalatu du EH BILDUREn bozeramailearen parte-hartzea balorazio politikoa izan dela, eta ez duela ulertzen Alkatetzaren irizpidea.

Alkateak erantzun du ez duela entzun EH BILDUREn bozeramailearen parte-hartzean inolako aipurik eztabaidagai zen proposamen zehatzari buruz, baizik eta balorazio orokor bat, aztergaien zerrendako puntuarekin zerikusirik gabea.

Bozketara eraman da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 16 boto alde (EAJ, PP eta PSE-EE), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 5 abstentzio (GUK eta Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/24, zenbatekoa 17.700,00 euro duela,

debate general para el cual ha tolerado la Alcaldía que en el primer punto se celebre por parte de todos los grupos y en el que EH Bildu también ha expresado su opinión. Recuerda que según el ROM en los puntos del orden del día las intervenciones deben de ajustarse al contenido de los mismos, pidiendo a la portavoz de EH Bildu que se ajuste a lo indicado.

Nerea Guijarrubia responde que la valoración ha sido política para fijar posturas respecto a las siguientes votaciones y estima que lo que ha realizado no infringe el ROM.

Enrique Olaso interviene para indicar que la intervención de la portavoz de EH Bildu ha sido una valoración política y no entiende el criterio de la Alcaldía.

El Alcalde contesta que en la intervención de la portavoz de EH Bildu no ha oído ninguna referencia a la propuesta concreta que se debate sino una valoración general sin referencia alguna al punto del orden del día.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/24 de Crédito Adicional, por importe de 17.700,00 euros, que afecta a las

aurrekontu partida hauei lotua sigüientes partidas presupuestarias:
dagoena:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
001/1320/6230400	Tresnak eta erremintak (Segurtasuna eta ordena publikoa) Útiles y herramientas (Seguridad y orden público)	14.200,00
001/1320/6250100	Altzariak (Segurtasuna eta ordena publikoa) Mobiliario (Seguridad y orden público)	3.500,00
Guztira Total		17.700,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	17.700,00
--	-----------

91.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: ADMINISTRAZIO OROKORRA PROGRAMAKO INBERTSIOAK (2017/25).

Bozketara eramán da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 16 boto alde (EAJ, PP eta PSE-EE), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 5 abstentzio (GUK eta Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/25, zenbatekoa 25.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

91.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA INVERSIONES DEL PROGRAMA ADMINISTRACIÓN GENERAL (2017/25).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/25 de Crédito Adicional, por importe de 25.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
001/9200/6250100	Altzariak (Administrazio Orokorra) Mobiliario (Administración General)	25.000,00
Guztira Total		25.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	25.000,00
--	-----------

**92.- GEHIGARRIZKO KREDITUA
EMATEA ONESTEIA: UDAL ZAHAR-
EGOITZAKO INBERTSIOAK
(2017/26).**

Bozketara eraman da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 17 boto alde (EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 4 abstentzio (GUK).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/26, zenbatekoa 9.840,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

**92.- APROBACIÓN DE CRÉDITO
ADICIONAL PARA INVERSIONES
DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL
(2017/26).**

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 votos en contra, EH Bildu; 4 abstenciones, GUK,.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/26 de 9.840,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
002/2313/7310001	Erakunde autonomoi (Laguntza zerbitzua adineko pertsonentzat) Organismos autónomos (Servicios asistenciales para personas mayores)	9.840,00

Guztira Total	9.840,00
------------------	----------

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	9.840,00
--	----------

**93.- GEHIGARRIZKO KREDITUA
EMATEA ONESTEIA: KULTUR
ETXEKO DIRU-LAGUNTZA
IZENDUNEN ZUZKIDURA
GEHITZEA ETA INBERTSIOAK
EGITEA (2017/27).**

Proposamena irakurri ondoren, Paula Amievak hitza hartu eta adierazi du Kultur Etxearen azken zuzendaritza-batzordean eztabaida bat egon zela Euskaltegiko irakasleen lan-egoeraz, eta gobernu-taldeak erabaki zuela eztabaida horrekin jarraitu behar zela, eta horretaz galdetu du.

Alkateak seinالاتu dio galde-eskeen atalean egin behar duela galdera hori.

Oier Iturralde adierazi du EH BILDUK ez duela proposamena babestuko ados ez daudelako gobernu-taldeak Kulturaren sustapena Etxean egiten ari den politikarekin.

Bozketara eraman da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 16 boto alde (EAJ, PP eta PSE-EE), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 5 abstentzio (GUK eta Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

**93.- APROBACIÓN DE CRÉDITO
ADICIONAL PARA EL
INCREMENTO DE LA DOTACIÓN
DE SUBVENCIONES
NOMINATIVAS Y REALIZACIÓN
DE INVERSIONES DEL AULA DE
CULTURA (2017/27).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Paula Amieva que indica que en la última Junta Rectora del aula hubo un debate acerca de la situación laboral de los profesores del Euskaltegi y quedó el equipo de gobierno en que se iba a continuar con dicho debate y pregunta sobre ello.

El Alcalde le indica que dicha cuestión la formule en el apartado de ruegos y preguntas.

Oier Iturralde manifiesta que EH Bildu no va a apoyar la propuesta porque no están de acuerdo con la política que lleva el equipo de gobierno en el Aula de Cultura.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/27, zenbatekoa 71.842,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2017/27 de Crédito Adicional, por importe de 71.842,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
003/3340/4310001	Erakunde autonomoi (Kulturaren sustapena) Organismos Autónomos (Aula de Cultura)	1.842,00
003/3340/7310001	Erakunde autonomoi (Kulturaren sustapena) Organismos Autónomos (Aula de Cultura)	70.000,00
Guztira Total		71.842,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako <u>Remanente de tesorería</u> para gastos generales	71.842,00
---	-----------

94.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARLOKO INBERTSIOAK (2017/28-1).

Proposamena irakurri ondoren, Nerea Guijarrubiak hitza hartu eta seinalatu du hirigintzaren arloan hainbat proiektu aurkezten direla, batzuk mantentze-lanei buruz, beste batzuk irisgarritasun-obrei buruz, horietako batzuk EH BILDUK bat egiten duen eskaerei erantzuteko, eta banan-banan bozketara eramango balira, proposamen-multzo handiago batean sartu barik, alde botoa emango lieketela, baina bat ez datozen beste proposamen batzuekin batera aurkeztuta, ezin dutela osotasuna babestu.

Enrique Pradak seinalatu du ez dutela

94.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES EN EL ÁREA DE URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS (2017/28-1).

Tras darse lectura a la propuesta Nerea Guijarrubia interviene para indicar que en el ámbito del urbanismo se plantean diferentes proyectos, algunos referentes a mantenimientos, otros a obras de accesibilidad, respondiendo a peticiones compartidas por EH Bildu y si fueran sometidas individualmente a votación, sin incluirlas en un grupo más amplio de propuestas, las apoyarían pero que al someterse en conjunto con otras propuestas que no comparten no pueden apoyar la globalidad.

Enrique Prada indica que no van a

proposamenaren kontra bozkatuko, beharrezkoak diren jarduketa batzuk jasotzen baititu, nahiz eta GUK Getxoren lehentasunekin bat ez etorri, esaterako, Romoko Urkizu plaza, Bolue eta Salsiduko bidegurutzeara, Sarrikobasoko jarduketak, eta abar.

Inazio Uriartek seinalatu du Udalaren aurrezkiekin finantzatuta dagoela 1.575.625 euroko inbertsio-proposamena, eta zehazten hasi da zer jarduketa hartzen dituen barne, eta esan du kontra bozkatzen edo alde bozkatzen ez dutenek dagozkien azalpenak eman beharko dituztela.

Eduardo Andradek seinalatu du helburua dela aurrezkie inbertsio bihurtzea, eta kasu horretan, proposamen asko dagokiela PPren eskaerei: Areneko igogailua, komun publikoetako jarduketak, Portu Zaharrerako irispidea, eta abar. Amaitzeko, seinalatu du ez zaiola buruan sartzen nola bozkatu daitekeen proposatu diren jarduketa horien kontra.

Santiago Sainzek adierazi du proposamen egokia iruditzen zaiola, eta, halaber, Osoko Bilkurari jakinarazi dizkio Romoko Gobelaurre kalearen egoera eta lur azpiko igarobideek behar dituzten hobekuntzak, erantzuna eman diezaien. Gogorarazi du proposatzen den jarduketaren batek bere taldearen proposamenei erantzuten diela, eta gobernu-taldeari eskertu dizkio proposamenak.

Nerea Guijarrubiak adierazi du dena ez dela zilegi, eta zenbait inbertsioren gaineko zalantzarik ez duen arren, kritikatzeko du gobernu-taldeak hartutako bidea, eta egion duten akordioa, eta horregatik ezin dituztela

votar en contra de la propuesta ya que recoge actuaciones necesarias, aunque no se correspondan con las prioridades de GUK Getxo que eran la plaza Urkizu, de Romo, el cruce de Bolue y Salsidu, las actuaciones en Sarrikobaso, etc.

Inazio Uriarte indica que la propuesta de inversiones por un importe de 1.575.625 euros esta financiada con el ahorro municipal, pasando a detallar las actuaciones que se incorporan indicando que aquellos que voten en contra o no los apoyen tendrán que dar sus correspondientes explicaciones.

Eduardo Andrade indica que se trata de convertir el ahorro en inversión y en este caso muchas de las propuestas responden a peticiones del PP, como pueden ser el ascensor de Arene, las actuaciones en baños públicos, acceso al Puerto Viejo, etc. Finaliza indicando que no concibe que se pueda votar en contra de las actuaciones planteadas.

Santiago Sainz indica que le parece una propuesta acertada y traslada, asimismo, al Pleno la situación de la calle Gobelaurre de Romo y la necesidad de mejoras de los pasos subterráneos para que sean atendidas. Recuerda que alguna actuación que se plantea responde a propuestas de su grupo y agradece al equipo de gobierno estas propuestas.

Nerea Guijarrubia opina que todo no vale y no duda acerca de alguna de las inversiones pero critica el camino que ha adoptado el equipo de gobierno y el acuerdo al que han llegado y por eso no pueden apoyar estas propuestas. El

proposamen horiek babestu. Gobernu-taldeak lasterbide bat aukeratu du aurrekontua saihesteko, eta ez dator bat kudeaketa-bide horrekin. Berretsi du eskailera mekanikoen inbertsioa babestuko luketela, baina ezin dutela, beste batzuekiko itun baten barruan sartuta baitago.

Enrique Pradak seinalatu du GUK abstenituko dela, alde batetik, neurrien kontra ez daudelako, baina beste aldetik euren ustez lehentasunezko zenbait jarduketa baztertu direlako, lehen esan duten bezala. Orobat, faltan nabaritzen dute gobernu-taldeak erabaki bat hartzea energia berriztagarrietarantz aurrera egiteko; zeregin horretan GUKen babesa izango dute.

Inazio Uriartek adierazi dio EH BILDURI gobernu-taldeak egin dituen akordioekin ados ez badago bere buruari galdetu behar diola zergatik haiek ez diren gai izan akordioak lortzera. Behin eta berriz egin dituzten galderari dagokionez, berriro erantzun du diru-laguntza horiek jasotzen zituen akordio bat egon zela iaz eta aurten ez dagoela akordiorik, eta horregatik esan du berriro galdetu behar diotela euren buruari nolako garrantzia ematen dieten diru-laguntzei eta zer eragin duen horrek akordioetan.

Joseba Arregik eskertu dio Ciudadanoseko bozeramaileari gobernu-taldearen lana aitortu izana, eta PPre aldetik jaso duen laguntza ere eskertu du, baina gogorarazi du proposamen horiek gauzatzea 2017-2018 urte osoan luzatuko dela. GUK taldeari seinalatu dio Bolue eta Sarrikobasoko jarduketak sartuta daudela Getxo-txukun-etik eratorritako jarduketetan. Proposamenak barne

equipo de gobierno ha elegido un atajo para evitar el presupuesto y no comparte esa forma de gestión. Insiste en que apoyará las inversiones en escaleras mecánicas pero no pueden porque se incluye dentro de un pacto con otros.

Enrique Prada indica que la abstención de GUK se debe a que no están en contra de las medidas por un lado, pero por otro lado se excluyen algunas actuaciones que les parecen prioritarias, que antes ha indicado. También echan en falta una decisión del equipo de gobierno en avanzar hacia las energías renovables, labor en la que contarán con el apoyo de GUK.

Inazio Uriarte indica a EH Bildu que si no está conforme con los acuerdos que ha alcanzado el equipo de gobierno deben de preguntarse por qué no han sido capaces ellos de llegar a los acuerdos. Respecto a la reiterada pregunta contesta otra vez que el año pasado hubo un acuerdo que incorporó dichas ayudas y este año no hay un acuerdo, por lo que insiste que deben preguntarse qué importancia dan a las ayudas y en qué sentido incide también ello en los acuerdos.

Joseba Arregi agradece al portavoz de Ciudadanos su reconocimiento al trabajo del equipo de gobierno y también el apoyo que recibe del PP, aunque recuerda que la ejecución de estas propuestas se prolongarán durante todo el año 2017-2018. A GUK le indica que las actuaciones en Bolue y Sarrikobaso están incluidas en actuaciones derivadas de Getxo-txukun. La propuesta recoge

hartzen ditu ingurumen-iraunkortasun alorreko zenbait jarduketa, oraingo erabakitasunez orain arte ezarri izan direnak. Deitoratu du EH BILDUK proposamena ez babesteak prozedura arrazoiengatik.

Nerea Guijarrubiak onartu du inbertsioak beharrezkoak direla, baina euren botoarekin agertu nahi dutela euren desadostasuna PPrekiko akordioaren aurrean, horretan oinarritzen baitira proposamenak.

Enrique Pradak onartu du zenbait inbertsio Getxo-Txukunekin proposatzen direla orain eta lehen Auzoz-Auzorekin, eta ados dago heldu behar zaiela lehentasunezko irizten dieten jarduketei.

Bozketara eraman da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 17 boto alde (EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 4 abstentzio (GUK).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/28-1, zenbatekoa 1.575.625,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
004/1710/6010000	Azpiegitura eta Hirigintza (Parkeak eta lorategiak) Infraestructura y Urbanización (Parques y jardines)	39.000,00
004/4500/6090000	Bestelako inbertsioak (Azpiegituren arloko administrazio orokorra)	480.000,00

actuaciones en sostenibilidad medio ambiental que hasta ahora no se habían podido implementar con tanta decisión como ahora. Lamenta que EH Bildu, por razones de procedimiento, no apoye la propuesta.

Nerea Guijarrubia reconoce la necesidad de las inversiones pero con su voto quieren manifestar su crítica política al acuerdo con el PP, que es el que sustenta las propuestas.

Enrique Prada admite que ahora determinadas inversiones se plantean con Getxo-Txukun y antes con Auzoz-Auzo y coincide en que se deben de abordar las actuaciones que consideran como prioritarias.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 votos en contra, EH Bildu; 4 abstenciones, GUK.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2017/28-1 de Crédito Adicional, por importe de 1.575.625,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

	Otras inversiones (Administración general de infraestructuras)	
004/1650/6010200	Inbertsio argikuntzan (Kale-argiteria) Inversión alumbrado (Alumbrado público)	365.625,00
004/1600/6270000	Proiektu konplexuak (Estolderia) Proyectos complejos (Saneamiento)	150.000,00
004/1610/6270000	Proiektu konplexuak (Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza) Proyectos complejos (Abastecimiento domiciliario de agua potable)	130.000,00
004/1530/6010000	Azpiegitura eta Hirigintza (Bide publikoak) Infraestructura y Urbanización (Vías públicas)	411.000,00
Guztira Total		1.575.625,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	1.575.625,00
--	--------------

95.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARLOKO INBERTSIOAK (2017/28-2).

Inazio Uriartek proposamen baten berri eman du, parte hartzeko prozesuen bidez kontsultatutako herritarren nahiagatik hartu diren proiektuak jasotzen dituen.

Eduardo Andradek seinalatu du proposamenaren alde egingo dutela, inbertsiora aldatuko baitu dagoen aurrezkiaren zati bat, eta aurreikusitako jarduketak eskatu baitira Osoko Bilkura hainbat alditan, eta bere iritzian kontrako botoa ematen duenak azaldu beharko duela bere jarrera.

Ibon Rodríguezek adierazi du proposamena dela gobernu-taldeak egiten duen tranpadun kudeaketamotaren adibidea, eta berriz ere galdetu du ea PPrekiko akordioaren oinarria

95.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES EN EL ÁREA DE URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS (2017/28-2).

Inazio Uriarte da cuenta de la propuesta que recoge proyectos asumidos por la voluntad ciudadana consultada a través de los procesos participativos.

Eduardo Andrade indica que apoyarán la propuesta que traslada a inversión parte del ahorro existente y las actuaciones previstas han sido requeridas repetidas veces en el Pleno, por lo que entiende que el que vote en contra tendrá que explicar su posición.

Ibon Rodríguez indica que la propuesta es el ejemplo de la forma de gestión con trampa que practica el equipo de gobierno y vuelve a formular la pregunta de si el acuerdo con el PP se

den 2017an presoen familientzako diru-laguntzarik ez egotea. Badakite partaidetzako aurrekontuak EH BILDUREkin itundu zirela, eta gero prozesu bat egin dela eta horretatik atera direla proposamen horiek, baina gogorarazi du, halaber, prozesu horren lehen urratsean kendu zirela hirigintzari loturiko proposamenak, nahiz eta horietako zenbait mantendu diren, orain proposatu dena kasu, hirigintzari lotuak izan arren. Gogorarazi du bizilagunek azkenean aukeratu dutela gobernu-taldeak onartu zituen proposamenen artean, ez aurkeztutako guztien artean, eta euren ustez herritarrei iruzur larria egitea dela hori. EH BILDUK ez du lagunduko herritarrei tranpak egiten, eta horrenbestez proposamenaren kontra bozkatuko dute, baina aurkeztutako proiektuei buruzko eztabaida proposatuko balitz hura babestuko lukeela.

Inazio Uriartek seinalatu du hainbat alditan egindako duten galderaz EH BILDUK egin beharko lukeela barne gogoeta bat bere taldean, ikusteko nolako balioa ematen dioten gaiari eta zer lehentasun ematen dioten akordioak lortzeko orduan. Proposamenak zerikusia du bi jarduketak jakinekin eta ez du beste ezer hartzen, talde bakoitzak egin nahi duen balorazioa gorabehera.

Enrique Pradak seinalatu du proposamenaren alde egingo dutela. Zona estrategikoetan egitekoak diren jarduketak dira, eta irisgarritasunari eragingo diote. Egin den parte hartzeko prozesuari buruz uste du beldurtia edo arbitrarioa izan dela, eta iragazkiak ezarri direla hirigintza-arloko konturik onartzen ez zelako, nahiz eta orain proposatu direnak arlo horretakoak

basa en que durante el ejercicio 2017 no va a haber ayudas a las familias de presos. Saben que los presupuestos participativos se pactaron con EH Bildu y luego se ha realizado un proceso del que derivan estas propuestas, pero recuerda que en dicho proceso, en el primer paso, se eliminaron aquellas propuestas relacionadas con el urbanismo, aunque algunas como las que se proponen, pese a estar relacionadas con el urbanismo, se han mantenido. Recuerda que los vecinos han elegido finalmente entre aquellas propuestas que asumió el equipo de gobierno, no entre todas las presentadas, lo que estima que es un fraude grave a la ciudadanía. EH Bildu no va a colaborar en las trampas que se le realizan a la ciudadanía y, por lo tanto, votarán en contra de la propuesta aunque si se planteara un debate sobre los proyectos presentados lo apoyaría.

Inazio Uriarte indica que respecto a la pregunta repetidas veces formulada EH Bildu debe realizar su reflexión interna en su propio grupo para ver qué valor dan a esa cuestión y qué prioridad dan a la misma para llegar a acuerdos. La propuesta tiene que ver con dos actuaciones concretas y no incorpora nada más, sin perjuicio de que cada grupo pueda hacer la valoración que crea oportuna.

Enrique Prada indica que apoyarán la propuesta. Se trata de actuaciones en zonas estratégicas y con efectos a la accesibilidad. Respecto al proceso participativo realizado estima que ha sido temeroso o arbitrario, con filtros ya que no se admitían cuestiones urbanísticas, aunque estas que se proponen lo sean, pero pese a ello el proceso realizado es más que no

izan, baina, hala ere, egindako prozesua ezer ez egitea baino gehiago dela, Nagusien Etxean gertatzen den bezala. Udalari eskatu dio Udaletxearen irisgarritasuna ere lantzeko.

Ibon Rodríguezek uste du mugak dituztela politikak eta itunek, eta horietako bat dela ez ituntzea herritarren parte baten kalterako ezer. Beste muga bat da iruzurrik ez egitea herritarrei, parte hartzeko prozesu horietan egin den moduan, horietan gobernu-taldeak erabaki duena baino ez baita bozkatu eta ikusten baita dirua eta porlana direla gobernu-taldearen lehentasunak.

José Luis Landak adierazi du talde bakoitzak daukala parte hartzeari buruzko bere eredia, eta zalantzarik gabe gobernu-taldea hobetu dela azken urteotan parte hartzeko prozesuei dagokienez. Kritikatu du EH BILDUren adierazpenak eta seinlatu du jarduketa estrategikoak direla egin diren proposamenak, GUKek proposatu duen moduan, eta hirigintza-proiektuak kanpo uztea proposatu zenean ari zirela kokapen aldetik puntual eta mugatuak ziren edo inguruan singularrak ziren jardueri buruz. Parte hartzeko prozesua era argian egin zen, eta proposamen asko eta askotarikoak jaso ziren. Beraren ustez, parte hartzeko prozesua hobetu daitekeela, dena bezala, baina ez dela egon ez tranparik ez manipulaziorik.

equipo de gobierno dice que hay que esperar para unas cuestiones y para otras no. Le parece llamativo que sin tener debatido ni aprobado el presupuesto de 2017 se presente un acuerdo que condiciona los presupuestos de 2018 y 2019. Se pregunta si estos acuerdos de créditos adicionales y de habilitaciones no se van a convertir en un presupuesto real, porque para ello se ha esperado hasta la mitad del año cuando son créditos que se suponen necesarios.

Joseba Arregi indica que el proyecto es algo trascendental y solo puede salir si existe un crédito inicial y que en este caso necesita un desarrollo en el tiempo. A GUK le dice que existe un consenso político con 17 de 25 corporativos a favor y también un consenso social de años de peticiones de un parking en Algorta. La propuesta se basa en modelos científicos y si pueden aportar otros modelos está abierto a estudiarlos. Explica que para que una ciudad sea moderna hay que ganar espacio para los peatones pero hay que ofertar parkings y luego presionar a los vehículos. El plan de movilidad está previsto que se extienda hasta el año 2030 pero esta actuación responde a la situación actual de los nuevos equipamientos en Algorta.

Enrique Prada, respecto al tráfico viario de Algorta, cree prudente que se recojan datos del plan de movilidad. El estudio en el que se basa es insuficiente además indica que con un incremento del 20% del tráfico se colapsarán algunas zonas. Iniste en la insuficiencia del estudio para justificar una reforma

azterketa ez dela nahikoa hain eraberritze handia justifikatzeko. Proposatu du datu gehiago har daitezela erabakia oinarritzeko.

Ibon Rodríguezek ulertzen du proiektua egiteko zenbait urtetako finantzaketa behar izatea, baina eskatzen du lotsa pittin bat izatea eta ez ekartzeko 2018 eta 2019 ekitaldietarako obligazioak 2017ko aurrekontua oraindik jorratu gabe, eta kontu hau plazaratzen dutela gutxieneko sinesgarritasun bat ematen diotelako gobernu-taldeari, 2017ko aurrekontua Osoko Bilkurara ekartzeko konpromisoa hartu baitu. Trafikoari dagokionez, esan du zona batean murrizten bada beste batera aldatuko dela, eta San Nikolaseko aparkalekuari buruz berriro esan du erabilpena eman behar zaiola, eta ekipamenduen kudeaketari buruz gogorarazi du kudeaketa zuzenaren aukera ere badagoela.

Joseba Arregik erantzun du bere ustez EH BILDU teknikoki ados dagoela trafikoaren antolamenduarekin. Beraren ustez jarduera-eremu horretan nabarmen egin da aurrera udalerrian 1991tik. GUKi galdetu dio zeintzuk diren ahaztutako auzoak, plaza guztietan jarduketak egin baitira. Berriro esan du bestelako irtenbideak oinarritzen dituen azterketa teknikorik edukiz gero aurkez dezatela. Azterketak esaten du zenbait zonatan ezin dela jasan trafikoaren % 20tik gorako handitzea. Amaitzeko, esan du hirigintza-arloan GUKetik bakarrik jasoi dituztela ezezkoak edo jardun aurretik itzaroteko eskaerak, hau da, ezer ez egiteko.

Enrique Pradak erantzun du ez zaiola

de este calibre. Plantea que se tomen más datos para fundamentar la decisión.

Ibon Rodríguez entiende que para realizar este proyecto hace falta una financiación de varios ejercicios pero piden un poco de vergüenza y que no se traigan obligaciones para los ejercicios de 2018 y 2019 sin tratar el presupuesto del 2017 y plantean esta cuestión porque otorgan un mínimo de credibilidad al equipo de gobierno en el sentido de que se ha comprometido a presentar el proyecto de presupuesto de 2017 al Pleno. Del tráfico lo que indica es que si se restringe una zona se trasladará a otra y sobre el parking de San Nikolas insiste en que hay que darle una utilización y sobre la gestión de los equipamientos recuerda también que existe la posibilidad de la gestión directa.

Joseba Arregi responde manifestando que opina que EH Bildu está técnicamente de acuerdo con la ordenación de tráfico. Cree que este ámbito de actuación desde el año 1991 se ha mejorado notablemente en el municipio. Pregunta a GUK cuales son los barrios olvidados ya que se ha actuado en todas las plazas. Insite en que si disponen de estudios técnicos que fundamenten otras soluciones que los planteen. El estudio dice que no se puede soportar en alguna zona un incremento superior al 20% de tráfico. Finaliza indicando que de GUK en el ámbito urbanístico solo ha percibido negativas o peticiones de que se espere para actuar, es decir, para no hacer nada.

Enrique Prada replica que no le parece

arrazoizko iruditzen bi goizetako bi ordutan oinarritzea azterketa. Gobernutaldeari eskatu dio azterketa hori berraztertzeke. GUK Udalera etorri da bestelako ideiekin, eta gauzak aldatzeko, eta proposatzen duen egiteko moduak gobernutaldearenetatik oso ezberdinak direla, eta hori islatzen dela nola ulertzen dituzten adostasunak, herritarren parte-hartzea eta abar.

Ibon Rodríguezek berretsi ditu bere aurreko parte-hartzean emandako dituen arrazoiak, konpromiso-kredituei eta 2017ko aurrekontuen eztabaidari buruz.

José Luis Landak esan dio EH BILDURI proposamen hauek ekarri direla adostasun politiko baten ondorioa direlako, adostasun hori EH BILDUREKIKO aurrekontu-akordioa indarrean zegoenean formalizatu zela, eta Osokoko Bilkura honetako gainerako proposamenak PPrekin egin dituzten akordio berriagoen eta 2016ko aurrekontutik eratorritako EH BILDUREKIKO akordioak gauzatzearen ondorio. Berretsi du ez dagoela PPrekiko aurrekontu-akordiorik.

Bozketara eraman da proposamena, eta emaitza hau lortu du: 16 boto alde (EAJ, PP eta PSE-EE), 8 boto kontra (GUK eta EH Bildu), eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Konpromiso-kredituak onestea, hona:

razonable que el estudio se base en dos horas de dos mañanas. Pide al equipo de gobierno que reconsidere dicho estudio. GUK ha llegado al ayuntamiento con otras ideas y para cambiar las cosas y las formas de hacer que plantea son muy diferentes a las del equipo de gobierno y ello también tiene reflejo en como se entienden los consensos, la participación ciudadana, etc.

Ibon Rodríguez insiste en las razones indicadas en su intervención anterior sobre los créditos de compromiso y el debate de los presupuestos del 2017.

José Luis Landa manifiesta a EH Bildu que se han traído estas propuestas porque son producto de un acuerdo público, que se formalizó cuando estaba en vigor el acuerdo presupuestario con EH Bildu y el resto de las propuestas de este Pleno responden a acuerdos recientes con el PP y la ejecución de los acuerdos de EH Bildu derivados del presupuesto de 2016. Se ratifica en que no hay acuerdos presupuestarios con el PP.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 8 votos en contra, GUK, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobación de los siguientes créditos de compromiso:

Ekitaldia Ejercicio	Aurrekontuko partida Partida presupuestaria	Zenbateko a Importe
2018	004.1530.6010000	680.000
2019	004.1530.6010000	275.000
Total		955.000

HIRIGINTZA, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

107.- AURKEZTUTAKO XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN ETA BETIKO ONESTEA, 29-ARRIGUNAGA BANAKETA-ARLOAN TALAIETA KALEKO 16KO PARTZELAKO ERAIKINA ORDEZTEARREN.

107.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PRESENTADO PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO N° 16 DE LA CALLE TALAIETA (AREA DE REPARTO N° 29-“ARRIGUNAGA”)

Bozketara eramana proposamena, eta emaitza hau lortu du: 11 boto alde (EAJ eta PSE-EE), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 10 abstentzio (PP, GUK eta Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 10 abstenciones, PP, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I.- ETCHEVERRY TALAIETA S.COOP etxebizitzaren kooperatiba-sozietateko fiduziario den JON ORTEGA ETCHEVERRY jaunak aurkeztutako xehetasun-azterketa behin betiko onestea. Hori guztia, Talaieta kaleko 16. zenbakiko lur-zatia, 29. Arrigunaga banaketa-arean, dagoen eraikuntza kentzeko eta berria egiteko. Hasierako onespenean egindako ñabardurak kontuan izan behar dira.

I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. JON ORTEGA ETCHEVERRY, fiduciario de la sociedad cooperativa de viviendas ETCHEVERRY TALAIETA, S.COOP, para la sustitución de la edificación existente en la parcela sita en el nº 16 de la calle Talaieta, Area de Reparto nº 29-“Arrigunaga”, por otra de nueva planta, debiéndose tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín

Ofizialean argitaratuko da.

Oficial de Bizkaia.

III.- Interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsioak adieraziz.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

MOCIONES E INTERPELACIONES

108.- PP UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA : AREETAKO GELTOKIA PLAZA ERABERRITZEA.

108.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA REFORMA DE LA PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS.

Iñaki Gamero mozioa irakurri du.

Iñaki Gamero da lectura a la moción.

Joseba Arregik zuzenketa transakzional bat aurkeztu, eta irakurri du:

Joseba Arregi presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

“Lehena.-Ahalik arinen plazaren irudia eta erabilera indartzea, gune erakargarriago bat egiteko asmoz; horretarako jardinerak, altzariak eta bestelako elementu batzuk jarriko dira.

“Primero.- Que a la mayor brevedad posible se potencie el uso de esa plaza instalando mobiliario, jardineras y otros elementos que hagan de ella un espacio más amable.

Bigarrena.- Horrekin batera, alderdi politikoen artean adostu dadila HAPOaren eragin esparruaren barruko erabilera-programa eta ondoren, herritarren parte-hartze prozesua sustatuko duen idela lehiaketa antolatzea eta hala badagokio, prozesu guztia
•berritze-proiektu batean amaitu dadila.

Segundo.- Que en paralelo se acuerde entre los grupos municipales el programa de usos del ámbito de actuación delimitado en el PGOU y tras ello, se realice un concurso de ideas que incorpore un proceso de participación ciudadana y que concluya, en su caso, con la elaboración de un proyecto de remodelación.

Hirugarrena.- Mozio hau udal kornunikabideetan jakinaraztea”.

Tercero.- Que se de cuenta de esta moción en los medios de comunicación Municipales”.

Iñaki Gamero onartu du zuzenketa transakzionala.

Iñaki Gamero acepta la transaccional.

Susana Andollok ere zuzenketa transakzional bat aurkeztu, eta irakurri du:

Susana Andollo presenta también una enmienda transaccional, a la que da lectura:

“LEHENA.- Zehatz daitezela aipatutako plazaren eta haren inguruaren erabilerak, eta has dadila parte hartzeko prozesu bat denen artean adosteko horren funtzioa.

BIGARRENA.- Ezar dadila epe laburrerako egutegi bat proiektua abian jartzeko”.

Iñaki Gamero eskertu du erakutsitako interesa, baina formako arazoak direla era ezin duela bere egin zuzenketa.

Oier Iturraldek, EH BILDUren izenean, beste zuzenketa transakzional bat aurkeztu, eta irakurri du:

“LEHENENGOA: Geltokiko enparantzaren erabilerak zehaztu balno lehen herritarrek parte hartzeko prozesu bat abiatuko da, zonalde hori nolakoa izatea nahi dugun auzokide guztien artean adosteko.

BIGARRENA: Prozesu parte hartzaile hori martxan jartzen den bitarean plaza horren erabilera bultzatea, duinagoa izan dadin eta jendeak erabili dezan”.

Iñaki Gamero eskertu du proposamena, baina ez du onartu.

Oier Iturraldek hitza hartu, eta esan du ez mozio transakzionala ez jatorrizkoak ez daukatela ordena logikoa, lehenago proposatzen dutelako baimena definitzea, eta gero parte hartzeko prozesua, eta logikoena litzatekeela alderantzizko ordena.

Susana Andollok erantzun du badirudiela gai horretan ados daudela talde guztiak, eta bakarrik falta dela eraberritzeri ekitea, eta helburu hori zuela GUKen ekarpena.

“PRIMERO.- Que se proceda a determinar los usos de dicha plaza y su entorno, abriendo un proceso participativo para consensuar entre todos y todas, la funcionalidad de la misma.

SEGUNDO.- Que se establezca un calendario a corto plazo para poner en marcha este proyecto”.

Iñaki Gamero agradece el interés manifestado pero por cuestiones formales no puede asumirla.

Oier Iturralde, en nombre de EH Bildu, presenta otra enmienda trasaccional, a la que da lectura:

“PRIMERO: Previo a la definición de los usos de la plaza de la Estación, se pondrá en marcha un proceso de participación ciudadana, con objeto de decidir entre toda la población del barrio.

SEGUNDO: Mientras se pone en marcha dicho proceso participativo, se impulsará el uso de la plaza mencionada, a fin de que sea más digna y la gente la utilice”.

Iñaki Gamero agradece la propuesta pero no la admite.

Oier Iturralde interviene para manifestar que la moción trasaccional como la inicial no contiene un orden lógico ya que en primer lugar plantea definir la autorización y luego el proceso participativo cuando lo lógico sería invertir el orden.

Susana Andollo manifiesta que respecto a este tema parece que todos los grupos están de acuerdo y lo que falta es arracar con la reforma y a esa finalidad se dirigía la aportación de

GUK.

Santiago Sainzek esan du ados dagoela Geltokiko plaza eraberritzearekin, eta gogorarazi du taldeei eskatu zitzaizela ideiak ekartzeko eta Ciudadanosek ekarri zuela hiri-altzariak jartzean desmuntagarriak jartzearena. PPri kritikatu dio kreditu gehigarrietan kontuan hartu ez izana jarduketa horri buruzko ezer.

Joseba Arregik adierazi du proiektu estrategikoek gehiengo zabala daukatela.. Parte hartzeko prozesuak, zein talde politikok gobernatzen duen gorabehera, ez dira inon zerotik hasten, plazek baitauzkate euren erabileren errealitateak. Proposamenak eskaintzen dira herritarrek iradokizunak eta aldaketak ekar ditzaten. Plazak, gaur egun, erabilera intentsiboa dauka. Beraren iritzian talde politikoen artean adostu behar da erabilera-egitarau bat, eta horretatik abiatuta parte hartzeko prozesu bat egin, eta horrela egin arte, plaza txukundu.

Susana Andollok seinalatu du gustura jorratuko dutela erabileren gaia dagokion batzordean. Ez dago zertan izan herritarrek parte hartzearen beldur, udal taldeei lagundu baitiezaieke erabakiak hartzen.

Iñaki Gamero eskertu du talde guztien interesa, eta proposatu du behin betiko erabilera zein izango den erabaki bitartean hobetu dadila plazaren instalazioa.

Susana Andollok gobernu-taldeari galdetu dio mozioaren helburu bakarra plaza txukuntzea bada zer egin behar duten haiek, eta esan du bere taldea

Santiago Sainz comparte reformar la Plaza de La Estación y recuerda que se pidió a los grupos que aportaran ideas y Ciudadanos aportó la instalación de mobiliario urbano que se pudiera desmontar.. Critica al PP que en los créditos adicionales no se haya contemplado nada con respecto a esta actuación.

Joseba Arregi manifiesta que los proyectos estratégicos cuentan con una amplia mayoría. Los procesos participativos en todos los lugares independientemente de que grupo político gobierne, no parten de una hoja en blanco ya que las plazas tienen sus realidades de uso. Se plantean propuestas para que la ciudadanía aporte sugerencias y modificaciones. Actualmente la plaza tiene un uso intensivo. Opina que entre los grupos políticos debe acordarse un programa de uso y a partir de ahí realizar un proceso participativo, y en tanto eso se produce adecuar la plaza.

Susana Andollo indica que estarán encantados de tratar el tema de usos en la comisión que se determine. No hay razón para tener miedo a la participación ciudadana que puede ayudar a los grupos municipales a que tomen decisiones.

Iñaki Gamero agradece el interés de todos los grupos y plantea que en tanto se decide el uso definitivo se mejore la instalación de la plaza.

Susana Andollo indica que si el único objetivo de la moción es adecuar la plaza, pregunta al equipo de gobierno qué van a hacer y que ellos se

abstenituko dela.

Oier Iturraldek adierazi garrantzitsua dela jarduketan ordena, eta gobernu-taldeari dagokiola proposamenak plazaratzea, baina proposamenak izan behar direla eta ez erabakiak. Ordena egokia izango litzateke parte hartzeko prozesua egitea erabilerak zehaztu aurretik eta ez alderantziz.

Joseba Arregik seinalatu du adituen iritzian oinarritu dela gobernu-taldeak proposatu duen ordena. Azaldu du nola dagoen aurreikusita prozesua, eta proposatzen dela erabileraren egitaraua, eta horren ostean ideia-lehiaketa, eta proiektuak parte hartzeko prozesuan jarri, eta hori guztia egiten den bitartean plaza hobetzea. Proposatu du akordio bat lortzea taldeekin.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 17 boto alde (EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 4 abstentzio (GUK).

Gehiengoak onartutako mozioak:

Duela urte asko, Udal Talde Popularra Areetako Geltoki Plaza premiaz berriztatu behar dela esaten ari da.

Gogora dezagun herritarrek 15 urte daramatzatela plaza atseginago bat proiektatzeko eta egiteko eskatzen, berdeguneetan. Espazio horretaz gozatu nahi dute, eta ez karpa bat jartzeko bakarrik erabili, urtean 6 hilabetez espazio publiko hori hipotekatzen duena.

Hori, guretzat funtsezkoa zena, ahaztuta dago.

abstendrán en la moción.

Oier Iturralde cree que es importante el orden de las actuaciones y plantear las propuestas compete a equipo de gobierno, pero que sean propuestas y no decisiones. Por orden adecuado procedería previamente a definir los usos, un proceso participativo y no a la inversa.

Joseba Arregi indica que el orden que plantea el equipo de gobierno se basa en la opinión de expertos. Indica cómo está previsto el proceso que plantea un programa de usos y a partir de ahí un concurso de ideas y los proyectos someterlos a un proceso participativo y durante ese tiempo mejorar la plaza. Plantea llegar a un acuerdo con los diferentes grupos.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 votos en contra, EH Bildu; 4 abstenciones, GUK.

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Desde hace muchos años, el Grupo Municipal Popular esta defendiendo la necesidad de una reforma urgente de la Plaza de la Estación de Las Arenas.

Recordemos que los vecinos llevan más de 15 años reclamando que se proyecte y ejecute una plaza más amable con zonas verdes que sirvan para su uso y disfrute, y no solo para la instalación de una carpa que hipoteca durante 6 meses al año este espacio público.

Esto que para nosotros era de vital importancia, ha caído en el olvido.

2007ko irailean, orduan udala osatzen zuten alderdi guztiek Areetako Geltoki Plazaren birmoldaketa onetsi zuten. Harrezkero, hainbat aipamen egin zaizkio gaiari. Azkena, 2016ko osoko bilkuran, plaza hori berriztatzeko mozio bat onestea izan zen.

EAJ-PSEren Gobernu Taldeak azaldu zuen birmoldaketa hori bi alderdien artean konpartitutako helburua zela eta epe motzean hobekuntzak planteatuko zituztela, gero proiektu bat adostu eta idazteko.

EAJk, gainera, esan zuen plaza horrek "aukera asko zituela", baina lehenik eta behin plazari eman nahi zaizkion erabilerak definitu behar direla, eta gero proiektu bat enkargatu, herritarren parte hartzea jasotzen duena. Hori egin zen, lehiaketa baten bidez: 28 proiektu-asmo jaso ziren plaza horretarako.

Partido Popular erabat ados dago erabilerak definitu beharrekin, herritarrei parte hartzea eskaintzearekin, eta proiektu bat enkargatzearekin, arestian azaldutakoan oinarrituta. Baina uste dugu ez dela zilegi hori guztia proposatu eta 10 urte beranduago oraindik erabilerak definitu gabe egotea, herritarren parte hartzea izapidetu gabe egotea eta proiekturik idatzi ez izatea.

Utzikeria galanta da, eta Udalbatza honen eta herritarren subiranotasunborondatearenganako mespretxua.

Eta are egoera mingarriagoa da,

En septiembre del 2007 ya se aprobó por todos los partidos que componían entonces la corporación, la remodelación de la Plaza de la Estación de Las Arenas. Desde entonces han sido múltiples los pronunciamientos en dicho sentido, hasta que por última vez, en el plenario de febrero de 2016 se aprobó una moción para reformar esta plaza.

Por el equipo de Gobierno PNV-PSE se planteó que dicha remodelación era un objetivo compartido, entre ambos partidos y que plantearían mejoras a corto plazo para luego redactar un proyecto consensuado.

También se decía por el PNV que esta plaza "tiene muchas potencialidades", pero que era necesario primero definir los usos que se quieran dar a la plaza y después encargar un proyecto en el que se incorpore la participación ciudadana, cosa que ya sucedió con un concurso que dio como resultado 28 ideas de proyecto para dicha plaza.

El Partido Popular coincide plenamente en que hay que definir los usos, dar participación a la ciudadanía, y encargar un proyecto en base a lo señalado anteriormente. Pero entendemos, que no es de recibo, que 10 años después de haber propuesto todo lo anterior, sigamos sin haber definido los usos, sin haber dado trámite a la participación de la ciudadanía, y sin haber redactado un proyecto.

Lo consideramos una total dejación, y desprecio a la voluntad de la soberanía de este pleno y a la de los vecinos.

Y esta situación es más dolorosa

aurretik lan eskerga egin delako, alferrrik galtzen uzten ari dena.

Gogoratu behar dugu Partido Popularrek proposamen bat egin zuela, eta bertan bizilagunen 348 ekarpen jaso genituela; ekarpen horiek plaza berrizatzeko aurreproiektu bati erantsi zitzaizkion.

Idea hori plaza honetan jarduketaren bat lortzeko akuilua izatea nahi genuke. Berriro ere diogu: talde eta herritar guztiei dokumentu hura lantzeko aukera ematen zitzaien. Ez zen proiektu itxi bat, eta ez genuen guk planteatu bezala egiteko eskatzen, ezta gutxiagorik ere.

Gogora dezagun 800.000 euroko hasierako inbertsio bat onestea lortu zela, 2010etik 2013ra garatzeko. Emaiza: ezertxo ere ez!

Gogora dezagun plaza hori berritzeko lehiaketa bat egin zela. Hogeita zortzi proiektu aurkeztu ziren; horietatik bost aukeratzea zen asmoa eta gero horiek jendaurrean jartzea. Berdin: ezertxo ere ez!

Egoera honen aurka egiten dugu, eta plaza horri eta bere inguruei eman gura dizkiegun erabilerak aztertzeko lanak lehenbailehen hasteko eskatzen dugu. Horrekin batera, herritarrek parte hartzeko prozesu bat egin dadila, jendeak ideiak eman ahal izateko.

Eta, hori guztia egiten den bitartean, Getxoko Partido Popularren udal taldeak eskatzen du hiri altzariak jar daitezela, adibidez bankuak, iturriak,

todavía, porque hay mucho trabajo realizado anteriormente y esta siendo desaprovechado.

Recordemos que el Partido Popular ya realizó una propuesta en la que recogimos 348 aportaciones de vecinos que se incorporaron a un anteproyecto de reforma de la plaza.

Queríamos que dicha idea sirviera de acicate para conseguir alguna actuación en esta plaza. Reiteramos, que dicho documento, estaba abierto a que fuera trabajado por todos los grupos y vecinos. No era un proyecto cerrado, y ni mucho menos exigíamos que se realizara tal como nosotros lo planteábamos.

Recordemos que se consiguió que se aprobara una inversión inicial de 800.000 euros para ir desarrollándolo desde 2010 a 2013. Resultado: ¡nada de nada!

Recordemos que se hizo un concurso para la reforma de dicha plaza, donde se presentaron 28 proyectos, de los cuales se tenía la intención de seleccionar cinco de ellos y luego proceder a su exposición pública. Lo mismo ¡nada de nada!

Nos revelamos contra esta situación y pedimos que se inicie de forma urgente los trabajos necesarios para estudiar los usos que queremos dar a dicha plaza y sus alrededores. Que junto a ello, se realice un proceso de participación ciudadana para que puedan manifestar sus ideas.

Y mientras, se realiza todo esto, el Grupo Municipal del Partido Popular de Getxo solicita que se instale mobiliario urbano, como pueden ser

komun publikoak eta zuhaitzak. Elementu horiek erraz lekualdatzeko modukoak izan litezke, eta plazan egiten diren ekitaldi soziokulturalekin guztiz bateragarriak.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten du:

Lehena.-Ahalik arinen plazaren irudia eta erabilera indartzea, gune erakargarriago bat egiteko asmoz; horretarako jardinerak, altzariak eta bestelako elementu batzuk jarriko dira.

Bigarrena.- Horrekin batera, alderdi politikoaren artean adostu dadila HAPOaren eragin esparruaren barruko erabilera-programa eta ondoren, herritarren parte-hartze prozesua sustatuko duen idela lehiaketa antolatzea eta hala badagokio, prozesu guztia
•berritze-proiektu batean amaitu dadila.

Hirugarrena.- Mozio hau udal kornunikabideetan jakinaraztea.

**109.- PP UDAL TALDEAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA :
GETXO IRRATIA NOLATAN
ERABILI GEHIAGO.**

Miguel Ibabek mozioa irakurri du.

Paula Amieva hitza hartu, eta esan du GUKek aldeko botoa emango duela, koherenziagatik, Getxoberri buruz antzeko zerbait proposatu baitzuten mozio batean; dena dela gogorarazi du PPK haren kontra bozkatu zuela, nahikoa ez zela iritzita. Konponbide

por ejemplo bancos, fuentes, aseos públicos y arbolado, elementos que pueden ser portátiles, fácilmente transportables, perfectamente compatibles con eventos socio-culturales que se realicen en esta plaza.

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

Primero.- Que a la mayor brevedad posible se potencie el uso de esa plaza instalando mobiliario, jardineras y otros elementos que hagan de ella un espacio más amable.

Segundo.- Que en paralelo se acuerde entre los grupos municipales el programa de usos del ámbito de actuación delimitado en el PGOU y tras ello, se realice un concurso de ideas que incorpore un proceso de participación ciudadana y que concluya, en su caso, con la elaboración de un proyecto de remodelación.

Tercero.- Que se de cuenta de esta moción en los medios de comunicación Municipales.

**109.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL POPULAR
S/INCREMENTO DE LOS USOS DE
GETXO IRRATIA.**

Miguel Ibabe da lectura a la moción.

Paula Amieva interviene para indicar que GUK votará a favor en coherencia con la moción en la que planteaban algo similar respecto al Getxoberri, aunque recuerda que el PP votó en contra de la misma porque no le parecía suficiente. Tampoco esta solución es suficiente

hau ere ez da nahikoa, falta baita agindu zen komunikabideei buruzko azterketa orokorra.

Amaia Agirrek hitza hartu, eta azaldu du nola funtzionatzen duen Komunikazio arloak. Azpimarratu du Getxo Irratia ez dela komunikaziorako bide bakarra, programazio laburra duela, gainerakoa musika dela, Getxo Irratiari arloaren lanaren % 10 ematen zaiola; eta zehaztu du zertan ematen den arloko langileen lanaldiaren gainerako zatia. Gaur egun, komunikazioaren eremuan dauzkaten erroka berriak dira Internet eta sare sozialak sartzea, eta lehenetsua ematen ari zaie bide berri horiei. Gobernu irekiaren politikaz ere arduratzen da Komunikazio arloa, eta hori guztia egiten ari langile berririk hartu gabe. Amaitzeko, seinalatu du kontuan hartuko duela proposamena eta landuko dutela.

Santiago Sainzek gogorarazi du iaz mozio bat aurkeztu zutela komunikabideen araudia aldatzeko, eta PPK ez zuela babestu. Ez du ulertzen zer presa duen PPK mozio horrekin, kontuan hartuta iraganean Getxo Irratia mantentzearen aurka azaldu zela.

Nerea Guijarrubiak adierazi du euren ustez proposatutakoa ez dela nahikoa, aldaketak sakonagoak izan beharko bailukete, Getxo Irratian ez ezik, udal-komunikabide guztietan ere bai, eta aurreikusi beharko litzatekeela elkarteek eta herritarrek parte hartzea. Komunikabideek ez dute gobernu-taldearen zerbitzura egon behar, elkarteek, gizarte-eragileen eta abarren zerbitzura baizik. Horri buruzko beren iritzia eta proposamenak proposatu izan dituzte, ez dute erantzunik izan.

porque falta el estudio global de los medios de comunicación prometido.

Amaia Agirre enteviene para explicar el funcionamiento del área de Comunicación. Recalca que Getxo Irratia no es el único vehículo de comunicación y que tiene una pequeña programación y el resto es música y a Getxo Irratia se destina el 10% del trabajo del área, detallando en que se ocupa el resto de la jornada del personal del área. Actualmente en el ámbito de la comunicación están con nuevos retos de introducción de Internet y las redes sociales y a estas nuevas vías se les está dando prioridad. También el área de Comunicación se encarga de la política de gobierno abierto y todo ello sin nuevas incorporaciones de personal. Finaliza indicando que tomarán en cuenta la propuesta y la trabajarán.

Santiago Sainz recuerda que el año pasado presentaron una moción para la reforma del reglamento de los medios de comunicación que el PP no apoyó. No entiende la prisa del PP en esta moción cuando el PP se ha manifestado en contra del mantenimiento de Getxo Irratia en tiempos pasados.

Nerea Guijarrubia indica que no creen que lo que se propone sea suficiente, ya que los cambios debieran ser más profundos, no sólo en Getxo Irratia sino en todo lo referente a los medios de comunicación municipales, contemplando la participación de las asociaciones y la ciudadanía. Los medios de comunicación no deben estar al servicio del equipo de gobierno sino al servicio de todas las asociaciones, agentes sociales, etc. Han planteado su opinión y propuestas en ese sentido sin

Beraien iritziz, irtenbideak integrala izan behar du, talde politikoek parte hartzera mugatu barik.

Miguel Ibabek esan dio Ciudadanosi ke-saltzaile ederrak direla. Nabarmendu du Getxo Irratia egon badela, eta proposatzen du hura aprobetxatzea mozioan jasota dauden jarduketekin. Kritikatu du batzordeetan ez duela parte hartzen komunikabideei buruzko gaietan, eta uste du Getxoko herritarren onerako jardun behar duela. Eskertu du GUKen eta EH BILDUren babesa, eta esan dio jarrera negatiboa daukala beti. Gobernu-taldeari erantzun dio jarraitzen duela bere erantzun klasikoak erabiltzen, eta mozioa ez dela Komunikazio arloari buruz ezta teknologia berrien erronkari buruz ere, askoz kontu errazago bati buruz baizik: talde politiko bakoitzari tarte bat eskaintzea eta talde politikoaren arteko tertulia bat egitea, hartara komunikazio-bide eraginkorragoa izateko.

Amaia Agirrek esan du proposatu duena zaila dela gaur egun, langile guztiak erronka berriei zuzenduta baitaude, baina hala ere saiatuko direla zerbait egiten mozioaren inguruan.

Santiago Sainzek PPri erantzun dio Lehendakaritza batzordean parte hartze ez duela esaten badute hori izango dela PPko zinegotzietako baten batek huts egiten duelako haietan. Adierazi du harremanetan egon dela arloko zinegotzi arduradunarekin bere proposamenak aurkezteko. Talde politikoak eta herritarrak komunikabideetan nola sartu zehazteko proposatu zuen ihaz komunikabideen araudiaren aldaketa.

recibir respuesta. Creen que la solución debe ser integral y no que se limite a la participación de grupos políticos.

Miguel Ibabe indica a Ciudadanos que vende mucho humo. Incide en que Getxo Irratia existe y plantea aprovecharlo con las actuaciones que se recogen en la moción. Critica que en las comisiones no interviene en cuestiones de medios de comunicación y cree que debe trabajar en a favor de los intereses de los vecinos de Getxo. Agradece el apoyo de GUK y a EH Bildu y le indica que siempre tiene una posición negativa. Al equipo de gobierno le responde que sigue utilizando sus respuestas clásicas y la moción no plantea el funcionamiento del área de Comunicación ni el reto de las nuevas tecnologías sino algo mucho más sencillo que es que se posibilite un espacio a cada grupo político y una tertulia entre los grupos políticos que sea un canal de comunicación más eficaz.

Amaia Agirre manifiesta que lo que plantea tiene dificultades actualmente ya que todo el personal está orientado a los nuevos retos, pero que pese a ello intentarán hacer algo en relación con la moción.

Santiago Sainz replica al PP manifestando que si afirman que en la comisión de Presidencia no interviene quizás esa afirmación se base en que falte alguno de los concejales del PP a las mismas. Manifiesta que ha estado en contacto con la concejala responsable del área para plantear sus propuestas. Además manifiesta que el año pasado solicitó la reforma del reglamento de los medios de comunicación para definir el acceso a los medios por parte de los grupos políticos y de la

ciudadanía.

Miguel Ibabek Ciudadanos erantzun dio Getxo Irratiaz ari direla berbetan, eta Ciudadanos zalantzan jartzen ari dela PPko kideak eta beraien lana. Esan du Ciudadanosek era positiboan egin beharko lituzkeela proposamenak. Eskertu dio gobernu-taldeari bere mozioari polit eta onargarri iritzi izana eta horren gainean lan egiteko asmoa agertu izana.

Miguel Ibabe replica a Ciudadanos indicando que se está hablando sobre Getxo Irratia y Ciudadanos está sembrando dudas sobre los componentes del PP y su trabajo. Cree que Ciudadanos debiera hacer propuestas en positivo. Agradece al equipo de gobierno que valore como bonita y aceptable la moción y que vayan a trabajar sobre la misma.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 9 boto alde (PP eta GUK), 5 boto kontra (EH Bildu eta Ciudadanos), eta 11 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 9 votos a favor, PP, GUK; 5 votos en contra, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Getxo udalerriak udal irrati bat dauka, getxotar guztien zergekin ordaintzen dena. Uste dugu pribilegioa eta aparteko aukera dela honelako bitartekoak edukitzea udal lanetarako, Getxoko herritarren alde.

Getxo es un municipio que cuenta con una emisora de radio municipal que se sufraga con los impuestos de todos los Getxotarras. Consideramos un privilegio y una gran oportunidad contar con este tipo de medios para la labor municipal, en beneficio de los ciudadanos de Getxo.

Irrati honen kostuak eta erabilera urria baloratu beharrea, Getxoko Partido Popularrek irrati hau herritarren onurarako erabili nahi du: getxotarrekin komunikatzeko bideak alderdi politiko guztiei ireki nahi dizkie.

Lejos de entrar a valorar los costes así como la escasa utilización de esta emisora, el Grupo Municipal Popular de Getxo quiere revertir esta emisora en beneficio de los ciudadanos, abriendo los canales de comunicación con los Getxotarras a todos los partidos políticos.

Legegintzaldi honetan zehar, udal talde honek informazio batzordeari eskatu dio Getxo Irratian espazio bat izateko aukera izan dezagula udal honetako alderdi politiko guztiok.

A lo largo de esta legislatura, desde este Grupo Municipal se ha ido pidiendo en la comisión informativa la posibilidad de que los partidos políticos de este Ayuntamiento podamos contar con un espacio en Getxo Irratia.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten du:

LEHENENGOA.- Eskatzen duen alderdi politiko orori espazio bat ematea Getxo Irratian. Espazio hori talde bakoitzak zuzenduko du, noski, erakunde hau eta herritarrak errespetatuz.

BIGARRENA.- Udalerriari buruzko tertulia politiko bat egiteko aukera ematea, alderdi politikoetako kide guztiekin.

HIRUGARRENA.- Mozio hau udalaren hedabideetan jakinaraztea.

Enrique Pradak alde egin du bileratik

110.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA : ESTATUAREN AURREKONTU OROKORRETATIK 27. XEDAPENA EDEKITZEA.

Paula Amievak mozioa irakurri du.

Ibon Rodríguezek esan du mozioaren alde egingo dutela aipatutako xedapenak adierazten duelako erakunde publikoak enpresa pribatuen mende egotea, eta EH BILDUK babesten duelako zerbitzuen kudeaketa zuzena, eta, gainera, xedapenak adierazten duelako euskal udalak Espainiako estatuaren mende egotea, EAJrentzat eroso den egoera Estatuaren Aurrekontu Orokorrari babesa eman baitio.

Miguel Ibabek adierazi du PPK

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- Que se conceda a cada partido político que así lo solicite un espacio en la emisora Getxo Irratia. Un espacio que cada grupo conduzca según se estilo, guardando, lógicamente, respeto a esta Institución y los vecinos.

SEGUNDO.- Que se habilite la posibilidad de hacer una tertulia política sobre el municipio contando con todos los miembros de los partidos políticos.

TERCERO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Enrique Prada abandona el Pleno.

110.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/ LA ELIMINACIÓN DE LA DISPOSICIÓN 27 DE LOS PGE.

Paula Amieva da lectura a la moción.

Ibon Rodríguez indica que apoyarán la moción ya que la indicada disposición evidencia el sometimiento de las entidades públicas respecto a la empresa privada y EH Bildu apoya la gestión directa de los servicios y también dicha disposición evidencia el sometimiento de los municipios vascos al Estado español, situación cómoda para el PNV que ha apoyado el Presupuesto General del Estado.

Miguel Ibabe indica que el PP votará en

kontrako botoa emango duela, eta animatu ditu horrelako proposamenak Kongresuan aurkeztera Podemosen bidez.

Paula Amievak seinatu du Kongresuan zentsura-mozioa aurkeztuko dutela PPren kontra. Xedapen horrek eragiten die zerbitzuak berriro udalaren esku jartzeko udalek izan ditzaketen ahalmenak. Jakitun da xedapen hori onartzea ez dagokiola udalari, baina beraren iritziz eskatu dezake.

Santiago Sainzek adierazi du GUKek Diputatuen Kongresuan aurkeztu dezakeela gaia Podemosen bidez, eta horrela egitera animatu ditu. Azaldu du eztabaidagai den xedapenaren edukia eta esan du bere ustez mozioak diskriminatzen dituela langile publikoak berdintasun, meritua, eta ahalmen printzipioen kontrakoak baita enplegu publikora sartzeari dagokionez. Galdetu du, halaber, Getxoko kasuan zehazki, nola onar liteke mozioan langile publikoak euskara exijitzei buruz proposatzen dena.

José Luis Landak adierazi du, mozioaren xedapenezko atalari dagokionez, erakargarria iruditzen zaiola hertsatzea, baina abstenitu egingo dela gutxi iruditzen zaiolako xedapen bakarra kritikatzeko, beraiek Aurrekontu Lege osoaren kontra baitaude.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 7 boto alde (GUK eta EH BILDU), 6 boto kontra (PP eta Ciudadanos), eta 11 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Gehiengoak onartutako mozioak:

contra y anima a que estas propuestas se planteen a través de Podemos en el Congreso.

Paula Amieva indica que lo que van a plantear en el Congreso es una moción de censura al PP. Esta disposición afecta a las posibilidades municipales de decidir la remunicipalización de los servicios. Es consciente de que la aprobación de esta disposición no corresponde al ayuntamiento pero entiende que se puede instar.

Santiago Sainz manifiesta que por parte de GUK pueden plantear esta cuestión en el Congreso de los Diputados a través de Podemos y a ello les anima. Explica el contenido de la exposición debatida y estima que la moción es discriminatoria para los empleados públicos ya que se opone a los principios de igualdad, mérito y capacidad en el acceso al empleo público. Plantea también, en el caso concreto de Getxo, cómo se podría admitir lo que se plantea en la moción en relación a la exigencia del euskera para los empleados públicos.

José Luis Landa opina, respecto a la parte dispositiva de la moción, que le parece sugerente instar pero que se van a abstener porque les parece poco solamente criticar una disposición ya que ellos están en contra de toda la Ley de Presupuestos.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 7 votos a favor, GUK, EH Bildu; 6 votos en contra, PP, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Por mayoría fue aprobada la siguiente

moción:

Ministro Kontseiluak 2017ko martxoaren 31n onetsitako eta 2017ko apirilaren 6an Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege-proiektuaren izapidetzeari dagokionez, jakinarazi nahi dugu proiektu horretako 27. xedapen gehigarriaren edukiaren aurka gaudela.

Udalak edo autonomia-erkidegoak, enpresa emakidadunen bitartez egindako kudeaketa pribatua lehengoratu, zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketaren alde egitea erabakitzen duen kasuetan, aipatutako xedapenak administrazio publikoetan langileak sartzea mugatzen du. Xedapen hori eraso zuzena da administrazio publikoen zuzeneko kudeaketa publikoa lehengoratzeko prozesuen aurka. Prozesu horiek udal edo autonomia-erkidego ugarietan hasi dituzte, langileen subrogazio-prozedurei dagokienez.

Jakitera eman behar dugu neurri berri horrek izaera erregresibo nabarmena daukala, arrazoi hauek direla eta:

1. Espainiako Konstituzioaren 140. artikuluan jasotako autonomia-printzipioari eragiten dio. Honako hau dio artikulua horrek: "Konstituzioak udalerrien autonomia bermatzen du. Udalerriek nortasun juridiko osoa dute. Udalerrien gobernu eta administrazioa haien udalei dagozkie, eta alkate eta zinegotziek osatzen dituzte udalok. Udalerriko biztanleek aukeratutako dituzte zinegotziak, sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren

Con motivo de la tramitación del Proyecto de Ley de Presupuestos Generales del Estado aprobado por el Consejo de Ministros el pasado 31 de marzo de 2017, y publicado en el Boletín Oficial de las Cortes Generales el 6 de abril de 2017, queremos mostrar nuestro rechazo al contenido incorporado en la Disposición Adicional 27 de dicho Proyecto.

La citada disposición limita la incorporación de personal laboral en las administraciones públicas en los supuestos en los que un Ayuntamiento o una Comunidad Autónoma acuerde apostar por la gestión directa de los servicios públicos revirtiendo la gestión privada realizada a través de empresas concesionarias. Esta disposición supone un ataque directo a los procesos de reversión hacia la gestión pública directa por las administraciones públicas, emprendidos en numerosos Ayuntamientos o Comunidades Autónomas en relación a los procedimientos de subrogación de los trabajadores y trabajadoras.

Debemos hacer constar que esta nueva medida es de un marcado carácter regresivo porque:

1. Ataca al principio de autonomía consagrado en el Artículo 140 de la Constitución Española, que establece que "La Constitución garantiza la autonomía de los municipios. Estos gozarán de personalidad jurídica plena. Su gobierno y administración corresponde a sus respectivos Ayuntamientos, integrados por los Alcaldes y los Concejales. Los Concejales serán elegidos por los vecinos del municipio mediante

bidez, legeak ezarritako moduan. Zinegotziek edo biztanleek eurek aukeratuko dituzte alkateak. Legeak arautuko du noiz izango den bidezkoa kontzeju irekiaren araubidea”.

2. Gaur egun, kontratuen bitartez, enpresa eta erakunde pribatuek kudeatzen dituzten titulartasun publikoko obra eta zerbitzuen kudeaketa zuzenera lehengoratzeko prozesuak zorrozki oztopatzen ditu; izan ere, ez du uzten egiaztatutako esperientzia eta profesionaltasunarekin gaur egun zerbitzuak ematen dituzten langileak bermeekin sartzeko.

3. Dagoeneko ezagutzen diren eta Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legearen ustezko oinarrietako bat ezeztatzen duten lege-oztopoei beste bat gehitzen die, honakoa, hain zuzen: zerbitzu publikoak emateko efizientzia, betiere alde batera utziz tokiko zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketak nahiz pribatuak eragozpen ugari sortzen dituela. Besteak beste, eragozpen hauek dira aipatzekoak:

a. Proiektuen kostu handiagoak, ohiko aukeren aldean (finantza-kostu handiagoak eta zerbitzua kudeatzen duten enpresen mozkinak ordaintzea).

b. Kontratistek ez zaie benetan arriskua eskualdatzen; izan ere, porrota/lehiaketa egonez gero, administrazioak hartzen ditu erreskate-kostuak bere gain, eta horiek oso altuak izan ohi dira.

c. Kontratuen iraupen luzeak eta edozein aldaketak eragindako zurruntasunak kostua handiagotzea dakar administrazioarentzako.

sufragio universal, igual, libre, directo y secreto, en la forma establecida por la ley. Los Alcaldes serán elegidos por los Concejales o por los vecinos. La ley regulará las condiciones en las que proceda el régimen del concejo abierto.”

2. Obstaculiza severamente los procesos de reversión hacia la gestión directa de los servicios y obras de titularidad pública que actualmente están gestionados por empresas y entidades privadas mediante contratos, al no poder incorporar con garantías a los y las trabajadoras que actualmente prestan sus servicios con probada experiencia y profesionalidad.

3. Supone un nuevo obstáculo legal a los ya conocidos, y que contradicen uno de los supuestos pilares de la Ley de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, que es la eficiencia en la prestación de los servicios públicos obviando que la gestión indirecta-privada de los servicios públicos locales presenta numerosos inconvenientes:

a. mayores costes de los proyectos frente a las alternativas convencionales (costes financieros superiores y pago de los beneficios de las empresas que gestionan el servicio);

b. no existencia de transferencia real del riesgo a las contratistas porque en caso de quiebra/concurso los costes de rescate recaen en la administración y éstos suelen ser muy altos;

c. la rigidez debida a la larga duración de los contratos y cualquier modificación implica incremento de coste para la administración;

d. Administrazioak gainditu beharreko kostu altuak, kontratistaren kontrolak, plangintzak eta diseinuak eragindakoak; hau da, sistemaren opakutasuna haren izaera komertzialagatik eta bigarren mailako merkatuak egon daitezkeelako.

Lehengoratzeko neurri horien aurrean, adierazi beharra dago zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa ez dela soilik aukera politiko zilegia, juridikoki bideragarria eta ekonomikoki jasangarria, baizik eta zeharkako kudeaketa baino eraginkorragoa nahiz jasangarriagoa izan daiteke, eta langileen eskubideak nahiz erabiltzaileen taxutzeko ahalmena gehiago berma ditzake.

Hori guztia dela eta, honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi diogu osoko bilkurari:

□ Getxoko Osoko Bilkurak bai estatuko gobernari, bai Diputatuen Kongresuari 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege-proiektuaren 27. xedapen gehigarria kentzeko eskatzea.

□ Erabaki hau igortzea Diputatuen Kongresuko Aurrekontu Batzordeko bozeramaileei eta presidenteari.

Koldo Iturbek azaldu du EAJ abstenitu dela udal-eremua gainditzen duelako mozioak eta hori dagokion foroan dagoelako eztabaidagai.

111.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA : GARDENTASUNA,

d. los altos costes de transacción para la administración derivados del diseño, planificación y control de la contratista; en fin, la opacidad del sistema dado su carácter comercial y la posible existencia de mercados secundarios.

En contra de tales medidas regresivas, es necesario señalar que la gestión directa de los servicios públicos no es sólo una opción política legítima, jurídicamente viable y económicamente sostenible, sino que también puede llegar a ser más eficiente, más sostenible y más garantista de los derechos de los y las trabajadoras y de la potestad configuradora de los y las usuarias que la gestión indirecta.

En vista de lo expuesto, traemos a este pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

□ Que el Pleno del Ayuntamiento de Getxo inste al Gobierno estatal y a los Grupos Parlamentarios en el Congreso de los Diputados a la eliminación de la Disposición Adicional 27 del proyecto de Ley de los Presupuestos Generales del Estado para el año 2017.

□ Remitir el presente acuerdo al Presidente y a los/as portavoces de la Comisión de Presupuestos del Congreso de los Diputados.

Koldo Iturbe explica el voto del PNV en que esta moción supera el ámbito municipal y se está debatiendo en el foro competente.

111.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/TRANSPARENCIA, PREVENCIÓN

USTELKERIAREN AURKAKO
NEURRIAK, PRESTUTASUNA ETA
ADMINISTRAZIOAREN
ONTASUNA.

Susana Andollok ondorengo mozioa irakurri du:

GUK taldeak, mozio bat idatzi behar duenean, xede hau du: gainerako alderdiak, eta bereziki gobernu-taldea, konbentzitzea Osoko Bilkurari aurkezten zaion gaia onesteko, proposamena ezartzea erabaki dezan; izan ere, badakigu mozio hori onestek ez duela juridikoki gobernu-taldea hura gauzatzera behartzen.

Adierazitako helburua lortze aldera, uste izan dugu komenigarria dela aste honetan gertatu zaiguna kontatzea Osoko Bilkura, eta bereziki gobernu-taldea, jarraian jasotakoa kontuan hartzeko beharraz konbentzitzeko.

Aste hasieran zurrumurru bat iritsi zitzaigun; horren arabera Jolasketan-Udajolasean-Kiroletan udako aisialdi-programa burutu eta garatzeko zerbitzuaren nahiz haurrak zaintzeko zerbitzuaren kontratua, Getxo Kirolakek lizitatutakoa, Getxo Kirolakeko presidentearen senide den eta udal honetako zinegotzi den Álvaro González jaunari adjudikatu zaio, zazpi urtez eta hirugarren aldiz segidan.

Esamesei bidea ez emateko, egin genuen lehenengo gauza Getxo Kirolaken Artezkaritza Kontseiluak (organo gorenak) maiatzaren 23an egindako bileran aipatutako kontratuaren adjudikazioagatik galdetzea izan zen, eta presidentek erantzun zuen espediente fiskalizatzen

DE LA CORRUPCIÓN,
INTEGRIDAD Y BUENA
ADMINISTRACIÓN.

